

IRAKASKUNTZA-GIDA

2014/15

Ikastegia

160 - Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea (Gasteiz)

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua

Ikastaroa

2. maila

IRAKASGAIA

25952 - Gizarte Baliabideen Behatokia

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

AZALPEN LABURRA

Irakasgai hau, E moduluari Praktikak eta Gradu Amaierako Lana dagokio, non titulazioko kreditu kopuru handiena metatzen den. Bertan Gelako Praktikak (24 ECTS), Kanpo Praktikak (32 ECTS) eta Gradu Amaierako Lana (10 ECTS) daude.

Modulu hau, kompetentzia profesionalaren garapenarekin estuki lotua dago. Horrela, ikasleek jardute profesionalerako ezagutza zein oinarriko kompetentziak bereganatzen dituzte; bertan Gizarte Langintzaren esku hartze zein ikerketa laburbiltzen dira. Moduluaren helburua jardute profesionalera hurbilpena da eta titulazio osoan zehar eskaintzen da, azkeneko kurtsoan practicum eta Gradu Amaierako Lana izanik. Zerikusia duten irakasgaiak: gizarte errealitateen behatokia, jardute profesionalerako sarrera, kanpo praktikak: practicum, hezkuntza gainbegiratzea eta etika profesionala eta Gradu Amaierako Lana.

Gizarte-errealitatearen ondorioz sortutako behar, gabezia eta problematikei erantzuteko dauden gizarte-baliabideen ezagutzarako lehenengo gerturatze bat eskaintzea da irakasgai honen helburua. Honetarako gizarte-babes sistema nagusienak aztertuta egiten dira. Gizarte-baliabideen azterketak gerturatze teoriko-praktikoa eskatzen du. Era berean, komunikazio-trebetasunak ere lantzen dira, harreman inter pertsonalarako abileziak bereziki.

IRAKASGAIAREN KONPETENTZIA ZEHATZAK:

1. Gizarte-babes sistema nagusien antolaketa, egitura orokorra eta gizarte-baliabideak ezagutu eta identifikatu.
2. Gizarte-babes sistema nagusien objektua, esku-hartze mekanismoak eta horniketa moduak ulertu.
3. Gizarte-babes sistema nagusiek gizarte-arazoak dituzten populazio-sektoreekiko dituzten gatazka eta mugak identifikatu.
4. Gizarte-babesaren sarbidean dauden bazterketa mekanismo eta diskriminazioa detektatu.
5. Informazio iturri ezberdinak erabiliz gizarte-baliabideen gida bat egiten ikasi.
6. Harreman interpertsonalarako trebetasunak eskuratu.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

ANECAK ONARTURIKO EDUKIEN DESKRIBAPENA

Irizpide ezberdinen arabera baliabide sozialen sailkapena:

- Erakunde erak: administrazio publikoa, hirugarren sektorea, enpresa.
- Kudeaketa ereduak: zuzena, ez-zuzena.
- Babes sozialen sistemak: gizarte zerbitzuak, osasuna, hezkuntza, sarreraren bermea, e.a.

Babes sistema era nagusiak eta dagokien baliabide sozialak: gizarte zerbitzuak, osasuna, hezkuntza, sarreraren bermea, etxebizitza, enplegu eta formakuntza, justizia.

Aho zein idatzizko komunikazio trebeziak, abilezia inter-pertsonalak batik bat.

Aurreko horretan oinarriturik, irakasgaia hiru gai nagusien arabera egituratzen da:

1.GAIA. Babes sistema nagusiak eta dagokien babes sozialak: Gizarte Zerbitzuak, Osasuna, Hezkuntza, Diru-sarreraren berme-errenta, Etxebizitza, Enplegu eta prestakuntza, Justizia.

2.GAIA. Babes sistemen arabera gizarte baliabideen lurralde analisi eta eremuen finkatzea.

3.GAIA. Gizarte baliabideen lurralde beharren diagnosis eta praktika onen lantzea.

METODOLOGIA

Irakasgaiaren izaera praktikoa dela eta, metodologia partehartzaile eta aktiboak gailentzen dira. Horregatik irakaskuntza gelako praktikak oinarri dutela egituratuko da. Zehazki, honako irakaskuntza era hauek nabarrituko dira:

- Azalpen teorikoak.
- Formazio jarduerak.
- Talde lanak.
- Gelako eztabaida dinamikak.
- Bakarkako eta taldeko aurkezpenak.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	15		45						
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	22,5		67,5						

Legenda: M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p. GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p.
GCL: P. klinikoak TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Praktikak (ariketak, kasuak edo buruketak) %
- Banakako lanak %
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) %
- Lanen, irakurketen... aurkezpena %

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Irakasgai honetan ebaluazio jarrairi ematen zaio lehenetsuna. Ikasleak ebaluazio jarraian bidean dagoela kontsideratzen da, klase etorreraren %85a gutxienez konplitzen badu. Etorreraren zenbaketa ikasleak berak eraman beharko du.

Ikasleagoak, ikasturteko 5. astearen hasiera baino lehen dagokion ebaluazio deialdiari uko egin diezaiotke, azken nota bezala EZ AURKEZTUA azalduko zaiolarik.

Ikasleren batek, justifikaturiko arrazoiak direla medio ezingo balu ebaluazio jarraian parte hartu, ebaluazio finala jarraitu dezake. Irakasgaiaren izaera zein edukiak direla eta, zenbait praktika egin beharko dira eta froga finala lanekin osatuko da.

Ebaluazio jarraia

Ebaluazio jarraian lanak (banakakoa zein taldekoa), beraien aurkezpenak eta saiotan parte hartze aktiboa hartuko dira aintzakotzat. Lanen entregatze soilak ez du irakasgaia gainditzera ziurtatzen, dagokien konpetentziak ere lortu beharko dira. Irakasgaia gainditzeko bi lanak gainditu beharko dira. Sintesian, baloratuko dena:

- Banakako lana: Gizarte Baliabideen lurralde mapa (Nota finalaren %35a).
- Taldeko lana: Zure auzoan egiten den praktika ona (Nota finalaren %65a).

Amaierako Ebaluazioa

Ikasleak ebaluazio jarraierako eskatzen diren bi lan horiek egin beharko ditu, baina indibidualki. Gainera, gida honetan gaineratzen diren nahitaez erabili beharreko materialetan oinarrituriko froga finala egin beharko du. Kalifikazioa ondoko honen arabera zehaztuko da:

- Banakako lana: Gizarte Baliabideen lurralde mapa (Nota finalaren %25a).
- Banakako lana: Zure auzoan egiten den praktika ona (Nota finalaren %40a).
- Nahitaez erabili beharreko materialetan oinarrituriko froga finala (Nota finalaren %35a).

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

- ARARTEKO (2007):Gazteentzako etxebizitza politika publikoak EAEn. Arartekoak Legebiltzarrari egindako txosten berezia, Vitoria-Gasteiz.
http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_281_1.pdf
- ARARTEKO (2008). Arreta soziosanitarioa: esparru kontzeptuala eta nazioarteko eta autonomietako aurrerapausuak. Hurbilketa. Arartekoak Legebiltzarrari egindako txosten berezia, Vitoria-Gasteiz.
http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_1357_1.pdf
- IZQUIERDO, J. y TORRES, R. (2010). Estado y sistemas de bienestar. Madrid: Académicas.
- KAHN, A. y KAMERMAN, S. (1987). Los servicios sociales desde una perspectiva internacional: el sexto sistema de protección social. Madrid: Siglo XXI.
- PISARELLO, G. (2003). Vivienda para todos, un derecho en (de)construcción: el derecho a una vivienda digna y adecuada como derecho exigible. Barcelona: Icaria.
- RUIZ, Pilar (2003). El trabajador social como perito judicial. Zaragoza: Certeza.
- SIIS (2011). Activación y derecho a la inclusión en el marco de las políticas de empleo y de garantía de ingresos en la CAPV. Donostia: SIIS.
- Zenbait Autore (2012). Trabajo social en el campo educativo. Madrid: Consejo General de Trabajo Social.

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

- ARARTEKO (2009). Haurrak babesteko sistemak eta horien erronkak. Giza eskubideei buruzko jardunaldiak bilduma 13. zka., Vitoria-Gasteiz. http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/2_2333_1.pdf
- ARARTEKO (2010). Euskal Autonomia Erkidegoko oinarrizko gizarte zerbitzuen egoera. Arartekoak Legebiltzarrari egindako txosten berezia, Vitoria-Gasteiz. http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_1941_1.pdf
- Consejo Escolar de Euskadi (2010). Informe sobre la situación de la enseñanza en Euskadi, 2006-2008. Bilbao.
- IEF (2003). Las nuevas fronteras de la protección social: eficacia y equidad en los sistemas de garantía de rentas. Madrid: Instituto de Estudios Fiscales.
- POQUET, R. (2008). Protección por desempleo: el sistema tras las últimas reformas. Valencia: Tirant lo Blanch.

Gehiago sakontzeko bibliografia

Moodle-en jasotako dokumentu sorta.

Legeria:

8/1997 Legea, ekainaren 26koa, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarena
12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzu-ei buruzkoa
18/2008 Legea abenduaren 23koa gizarteratzeko eta diru sarrerak bermatzekoa
3/2011 Legea, urriaren 13koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari buruzkoa

Oinarrizko legeria hau, Moodle-en jasotakoarekin osatzen da.

Aldizkariak

- Cuadernos de trabajo social. (Gizarte langintzan espezializatua)
- Revista Documentación Social.
- Revista Española del Tercer Sector
- Revista Portularia (Gizarte langintzan espezializatua)
- Revista Servicios Sociales y Políticas Sociales.

- Zerbitzuan

Interneteko helbide interesgarriak

- www.sis.net SiiS Ikerketa eta dokumentazio zentroaren web orrialdea.
- www.ararteko.net Arartekoaren webgunea

OHARRAK